

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Gaategiz-Arteaga



Aurkibidea

Udalerria: Gaategiz-Arteaga

Sarrera



Busturialdea eskualdean kokatzen den herri euskalduna da. Iparraldetik Ibarrangelu, hegoaldeetik Kortezubi, ekialdetik Ereño eta mendebaldetik Urdaibako Itsasadarrearekin mugatzen du azken honek Busturia eta Muruetarekin banatzen duelarik. Herriaren erdigunea Zelaietako auzoan dago, bertan daude udaletxea, eliza eta Herriko Plaza. Horrez gain, erdigunetik bananduta hainbat auzo desberdin daude: Basetxeta, Isla Goikoa, Isla Bekoa, Muruetagane, Orueta eta Tremoia. Gaategiz-Arteagako eraikinik garrantzitsuenak "Arteagako dorrea" edo gaztelua da. Erdi Aroko dorretxe baten hondarren gainean berreraiki zen, Eugenia Montijokoaren aginduz, Napoleon III.a bere senarraren garaian. Gaur egun, Arteagako dorretxean jatetxe eta hotel txiki bat daude. Mendebaldeko euskararen barruan tarteko hizkeraren barruan kokatzen da arteagatarren hizkera.

- **Biztanleak:** 905
- **Euskaldunak:** %74,56

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **12**
- Pasarteak: **91**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **91**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak

- Gautebiz-Arteagako toponimia
- IRLAren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Jon Akordarrementeria Bokoetxea (1935)

1935. urtean jaio zen Gautebiz-Arteagako Galatxu etxean. Gurasoak ere bertakoak ziren. Bere anaia [Pedro](#) gaz batera egin zioten bideoz grabatutako elkarrizketa hau 1989. urtean.

Aintzinako bizimodua, herrian egondako abadeak, erreka eta itsasadar inguruko gorabeherak eta arrantza, txori-motak, laminei buruz etxekoek kontatutakoak, Gabonetako usadioak, garai bateko jatekoak, eskekoak eta kitanuak, itsasoko kontrabandoa, errezeta tradizionalak... izan zituzten berbaak.

Pedro Akordarrementeria Bokoetxea (1926)

1926. urtean jaio zen Gautebiz-Arteagako Galatxu etxean. Gurasoak ere bertakoak ziren. Bere anaia [Jon](#) lagun zuela egin zioten bideoz grabatutako elkarrizketa hau 1989. urtean. Gaztetan itsasoan zein Boisen (AEB) artzain lanetan ibilitakoa.

Herrian egondako abadeak, Ameriketako kontuak, Gernika-Lumoko bonbardaketa, erreka eta itsasadar inguruko gorabeherak eta arrantza, txori-motak, laminei buruz etxekoek kontatutakoak, akelarreen eta kristautasunaren lotura, Gabonetako usadioak, garai bateko jatekoak, eskekoak eta kitanuak, itsasoko kontrabandoa, errezeta tradizionalak... izan zituzten berbaak.

Josune Astorkia Esturo (1935)



Zelaietako Zelaieta etxean jaio eta bizi izan da. Gurasoak ere herrikoak bertakoak zituen; bere ama jostun ezaguna eta abila izan zen. Bere aita berak hiru urte zituela, Gerra Zibilean, fusilatu zuten. [Pilartxu](#), [Pilar](#) eta [Carmen](#) herrikideekin batera egin genion elkarrizketa.

Pilar Beaskoetxea Goitisoló (1923-2012)



Ozollo auzoko Ozolloatzekoa baserriko alaba. Ama bertako zuen eta aita Mendatakoa. Hiru neba-arrebatatik gazteena izan zen. Herriko eskolara ibili zen 10 urtera arte eta gerora, Gernikara joan zen ikasten. Gero, Uria auzoko Aberasturi etxera joan zen bizitzeko. Senarra Busturikoa izan zuen. Bere auzokide diren [Pilartxu](#), [Josune](#) eta [Carmen](#)egaz batera kontatu zizkigun antzinako kontuak.

Bitorino Etxabe Zubizarreta (1925-2019)

1925. urtean jaio zen Muniategi (Arranpalokale) auzoko Argiñene baserrian, aitaren jaiotetxean, baina Abostegi baserrian hazia. Gero Basabena etxera ezkondu zen. Herriko toponimia batzeko proiektuaren baitan egin genion elkarriketa hau bere arreba [Pilartxu](#)gaz batera. Hala ere, ez zizkigun bakarrik toponimia kontuan kontatu, herriko beste hainbat konturen berri eman zigun-eta.

Pilartxu Etxabe Zubizarreta (1932-2021)



Arteagako Uria auzoko Abostegi baserrian jaio zen 1932. urtean eta beti bizi izan da bertan. Aita bertakoa zuen eta ama Nabarniztik neskame etorritakoa. Umetan eskolara joateaz gain josten ere ikasi zuen. Auzoko batekin ikasi zuen trokatutako eskumuturrak eta orkatilak osatzen eta zeregin horretan ibili izan da beti, jendeari lagunduz. Senarra ere herri berekoa zuen bi seme-alabadun ama honek. Bere lagun [Pilar](#), [Carmen](#) eta [Josune](#)gaz batera egin zitzaion grabaketa.

Gautegiz-Arteagako toponimia jasotzeko grabaketan bere neba [Bitorino](#)gaz batera grabatu genuen.

Juanito Iribar Ozollo

Agarreta auzoko Labiru baserrian jaio zen. Sei neba-arrebako familian gaztean izan zen. Herriko toponimia batzeko proiektuaren baitan egin genion elkarriketa hau. Hala ere, ez zizkigun bakarrik toponimia kontuak kontatu, herriko beste hainbat konturen berri eman zigun-eta.

Carmen Muniategi Muniategi (1921-2012)



Zelaietako Tabernazarren hazi eta bizitakoa. Gurasoak ere arteagarra zituen, familia berekoak gainera. Ezkondu ostean Mexikora joan zen senarrak bertan egiten baitzuen behar. Herrira bueltatzerakoan, Baraizera joan ziren bizitzera. [Pilartxu Etxabe](#), [Pilar Beaskoetxea](#) eta [Josune Astorkia](#) izan ditu lagun elkarriketa honetan.

Ane Miren Ozamiz Alberdi (1935)



Ezkontza-izena Ana Mari Arbillaga du. Ama Arteagakoa zuen eta aita Ibarrangelukoa (merkantzia-ontzi batean sukaldari ibilia). Lau senidetan hiru atera ziren aurrera: bi mutil eta Ane Miren. Gerra hasi zenean ihesi joan ziren eta Bilbon eta Natxituan bizi izan ziren (bertan joan zen eskolara). 12 urte zituenean bueltatu ziren Arteagara eta josten ikasten ibili zen. Ondoren Lequerika familiarentzat egin zuen lana, Areatzan eta Madrilen. Gazterik hil zitzaizkion aita eta ama. 1960an Californiara joan zen: izeba bat zeukan San Franciscen; Santa Rosan urtebete pasatu zuen, lehengusina baten umeak zaintzen, eta gero San Franciscen emakume batentzat egin zuen lana, arropak josten. Elkora (Nevada) joan zen emakume harekin, lagun batzuk bisitatzen. Bertan Nevada Basque Dinner House euskal hotelean lana eskaini zioten eta hara joatea erabaki zuen. 42 urtean egin zuen lana hotelean (jabeak aldatu arren, berak bertan segitu zuen), zerbitzari lehenengo eta sukaldari ondoren. Manuel Arbillagarekin ezkondu zen (Ameriketara jaioa baina euskal jatorrikoa) eta lau urtean Gernika-Lumon bizi izan ziren (1967an Ameriketara bueltatu ziren); bi seme izan zituzten. Elkoko euskal klubean ere oso aktibo aritu zen hasieratik: umei dantzak erakusten, dantzarako arropak josten, bazkarietan postreak prestatzen...

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Kazetariari sendatu zion orkatila

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Zubizarreta, Pilartxu
- **Elkarriketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: GAU-002/004
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:08:28. **Bukatu**: 00:10:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

- **Laburpena:** Behin kazetari bat Durangoko liburu azokan erori eta min hartuta Galdakaoko ospitalera joan zen. Han bendatu egin zioten eta muletekin bidali zuten etxera, baina baten batek esan zion Arteagan zegoela horrelakoak sendatzen zituen. Joan zitzaion Pilarri eta sendatu zion. Hurrengo egunean artikulua eskaini zion Deia egunkarian, baina ez zitzaion Pilarri gustatu petrikilotzat hartzen zuelako.

Transkripzioa

–Ba, hori, Durangon izen zani en libro egune, edurre ein eban; ta hori periodistie izen zan hori neskie. Eta ein laprast, ta jausi ein zan. Ta orduen, ba altza eben Galdakanora, ta Galdakanon, ba, han ipintzen eban berak ba zelan lau ordu pasilluen, arrantzaka miñegaz ein ebal eta iñok ez dotsola eitten izen kasurik. Eta gero, ba, ipin tsoien igeltsuen hankiori; igeltsue barik, beste bendie ipintzen dana hori gogorra ta. Ta han esan tsoien, ogon zien batzuk, ba Artian dekozu hori arreglaten deuen. Ta “Nor?” Ta, ba, “Pilar. Zuk esaizu Pilar, ta danak dakidxe, ta trokatute [...]”. Ta etor zan muletakaz. Beran amagaz etor zan, ta ein tsaten... Min eitten da, e... Eitten, min eittten da, ze zuk eitten zu, gogortxu dekozu ta ha gogortxue kendu biher de /bide/ ta. Eta beran amagaz etor zan, ta kendu tsatezen bendak, eta ein tsatezen gauzak, eta, ba, muleta barik jun zan. Ta berak ordun, hurrengo egunien, guk ez gendun jakin ta, “Deia leiduzu?” esan osten, “Pilar”, ta “ez”; ba osue, kara osue, ipinitte: “Amuma Pilar, Arteaga, hace milagros” ipinitte. Baia ez dasten gusta neuri. Ze berak ipintten eban [zeindda] nazen moduen... Horrek eitten deuzienak, masajiek bez, baia zelan esaten tsoien horrer...

–Senidea: Brujerixe.

–Moduen berak ipini eban...

–Kurandera...

–Kurandera. Hori. Ipintzen eban “La curandera... que cómo llegó a Arteaga” ipintzen eban, “con dos muletas, y que de casa de Pilar salió sin muletas” ta, ipintzen ttuzen berak, baia ez dasten gusta, ba horixe. Ta hurrongo egunien, ba, etor zani en, parkatuteko, ta, o sea ke ein dostezen berak... Baie ez dasten gusta periodikuen, berak ipini eban forman. Berak ipini baeban zer arreglaten doten, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Josi, trokatuak sendatu eta lobak zaindu (GAU-002/002)

Aitak Aldekoa itsasontzian egin zituen hamazazpi urte sukaldari, opor barik. Amak eraman zion aitari erakustera ume jaioberria Bartzelonara. Pilartxu bost urterekin hasi zen eskolara, hamabost urte ingura arte. Sei urterekin Jaunartzea. Urtebete eman zuen eskolako irakaslearekin esku-lanak ikasten. Hamasei urterekin josten ikastera joan zen; plantxatzen ikastera ere joan zen. 23 urterekin ezkondu zen.

2. Muletaduna muleta gabe bidaltzen du (GAU-002/003)

Amak trokatu zuen orkatila. Berak dena ikasi nahi zuen, oso kurioa baitzen. Hamabost urterekin lorategia zeukan, ia inork ez zuenean. Amari orkatila sendatu zionak irakatsi zion orkatilak, eskuturrak, lepoko minak eta antzekoak sendatzen.

3. Musutruk sendatzen du (GAU-002/005)

Pilarrek ez du titulurik eta profesionalen kexak izan ditu. Baina berak ez du kobratzen, opariak egiten dizkiote. Punta jakin batean egoten da beti kaltea eta hori biguntzeko min egin behar izaten du.

4. Otoitzarekin ordaindu zuten mojek (GAU-002/007)

Mojak etorri zitzaizkion Bilbotik; berak ez zenez kobratu, mojek familiaren alde otoitz egingo zutela esan zioten. Astean bertan eskaini zioten lanpostu on bat langabezian zegoen suhiari.

5. Lehen tortikulisak ere sendatzen zituen (GAU-002/009)

Lepoko mina sendatzeko, bururaino igurtzi behar du eta min egiten du; oso ezagunei baino ez die sendatzen. Orain hankako bihurrituak baino ez ditu sendatzen.

6. Lorategi ederra beti (GAU-002/010)

Harro dago lorategiarekin. Lehen baratzea bai, baina jendeak ez zituan loreak eta landatzen. Berak bai.

7. Sinistu gabe joan eta sendatuta itzuli (GAU-002/011)

Handituak sendatzen ere ikasi zuen. Lehenengo urteetan belauniko jartzen zen eta olio eta ozpina erabiltzen zituen. Orain ez. Sinistu gabe ere joaten zaizkio, baina denak itzultzen dira pozik.

8. Aberatsak kolegiara (GAU-002/013)

Arteagako eskolara joan zen txikitan. Partikularra ere bai. Aberatsak kolegiara joaten ziren, erdikoak partikularra, akademiara eta horrelakoetara, beheragokoak inora ere ez. Mutilak eta neskak eskola banatara joaten ziren. Sukaldari ona ere bada.

9. Gustura ikasi du beti (GAU-002/014)

Nesken irakaslea emakumezkoa zen eta mutilena gizona. Eguen (ostegun) arratsaldetan errekreoa zuten, esku-lanak egiten zituzten; astean behin apaiza joaten zitzaien dotrina irakastera. Arrosarioa esaten ere ikasi zuen.

10. Nesken eskolan maistra, mutilen eskolan maisua (GAU-003/002)

Pilarrek hamar urte egin zituen eskolan. Ama Kuban jaiotakoa zuen maistrak.

11. Ezkongai batekin abenturak (GAU-003/003)

Ezkongai bat hil berria da. Musu bat ahoan eman zion espero ez zuela!

12. Musurik ez ahoan: ez eta gizonari ere! (GAU-003/004)

Musuek tripa larria ematen diotela eta ez dio senarrari musurik eman, berak lehorra dela esaten badio ere.

13. Gizonari jarritako penitentzia (GAU-003/006)

Gizonak beti izan zuen pena abadeari kasu egiteaz. Penitentzia ezkondu arte emazteari musurik ez ematea izan zen.

14. Zer egin bazekiten (GAU-003/007)

Inork ezer argitzen ez bazien ere, bazekiten zer egin. Mezetan pentsatzen egoten ziren gauean zer egin behar zutenaren inguruan

15. Hilerekoa izango zutenik inork esan ez (GAU-003/008)

Eguno 13 edo 14 urteko umeek askoz gehiago dakite kontu horietaz beraiek baino.

16. Gizona Arantzazun fraide izandakoa (GAU-003/009)

Gizonak kantuan oso ongi egiten zuen eta ikasle ohi bezela beti Arantzazuko aldizkaria bidaltzen zioten.

17. Abadea pentsamendu txarrei buruz galdezka (GAU-003/010)

Pentsamendu txarrak zer ziren ere ez zekitenean galdetzen zieten beraiei buruz aitortzan.

18. Bonbardaketako unea (GAU-004/004)

Gerra Zibila zelan bizi izan zuten kontatzen dute Carmenek eta Pilarrek. Bonbardaketa eguna ondo gogoan daukate. Abioiak hirunan-hirunan pasatu ziren Gernikarantz, arrautzak balira bezala bota zituztela dio Carmenek. Alkatea bera ere soloan alperra pasatzen ari zela du gogoan Pilarrek.

19. Espainiako bandera pulpituan (GAU-004/005)

Gerra Zibilean nazionalak sartu ostean alkatea aldatu zuten. Hala ere, sasoi hartan, alkatearen papera abadeak betetan zuela diote. Espainiako bandera pulpituan egoten zen. Abadea aldatu zenean, don Pedro heltzerakoan, orduan kendu zuten bandera.

20. Ezkontzak; eztei-bidaia Donostiara (GAU-004/006)

Zein abadek ezkondu zien aipatzen dute, Carmenek ez du gogoan. Pilartxoren koinata oso dotore joan zen jantzita. Orduko ezkontzan gehienetan etxean bertan ospatzen ziren. Gehienak Donostiara joaten ziren eztei-bidaian.

21. Bartzelonaraino ezin euskaraz egin (GAU-005/002)

Pilartxuren ama behin Kortezubiko Kaltzada baserriko andrearekin joan zen Bartzelonaraino. Ez zekien gaztelaniaz, euskaraz egiten zuen berba ondoko lagunagaz. Bidaian zehar mutiko batek horrela ez hitz egiteko esan eta barbarik esan barik joan zen Bartzelonaraino. Aita itsasgizona zenez, amak asko bidaiatzen zuen. Pilartxu ere Bartzelonara joan zen eztei-bidaian. Gaztelaniaz ez jakin arren, ama ondo moldatzen zen toki guztietan batetik bestera ibiltzeko. Kataluniarrak beraien hizkuntza euskaldunek baino hobe defendatzen dutela uste dute.

22. Gaztelaniaz ondo ez zekien alkatea (GAU-005/003)

Josuneren aitita alkatea zen eta gaztelaniaz ondo ez jakin arren, ondo moldatzen zen. Udaletxeko idazkariak ere kontatu izan die bertako faktura asko zelan zeuden idatzita, "Seis sacos de forlan para Brasilio" esate baterako.

23. Ezkontzako arreo (GAU-005/006)

Emakume gehienak beltzez ezkontzen ziren. Arreo Mintegiaren prestatzen zuten, Gernika-Lumon. Izaretan bikotearen abizenak brodatzen ziren. Gerra ostean, askok ezin izan zuten holakorik egin, pobrezia handitu zen-eta.

24. Gerra garaian aitita bi urtez Arjelen (GAU-005/007)

Gerra garaian, Pilartxuren amak ez zuen jakin bere aita non zegoen bi urtez. Arjelen egon zen. Bere ama Nabarnizekoa zan eta baserriko alaba zenez handik jaso zuen etxerako jatekoa, beharizan askoko garaia izan zen-eta. Gerra garaia ondo gogoan dute Carmenek eta Pilarrek, Pilartxuk ez horrenbeste.

25. Somatenak (GAU-005/009)

Somatenak gerra aurreko monarkiaren aldeko polizia zibilak ziren, fusilak eramaten zituzten. Herrian diktaduraren aldeko aldarriak oihukatzen zituzten.

26. Izara zuriak nazionalek herri bat hartzerakoan (GAU-005/011)

Nazionalek inguruko herriren bat hartzen zutenean emakumeek izara zuriak ateratzen zituzten abisu moduan.

27. Gautegiz-Arteagan bi afusilatu (GAU-005/012)

Josunen aita afusilatu egin zuten herriko idazkariarekin batera. Josuneren aitari heriotza-zigorrera zigortu eta gero ilea urdindu zitzaion. Herriko abadea izan ei zen afusilaketen erruduna. Ama umedun zegoen eta pixka bat lehenago semea hil zitzaion. Josunek hiru urte zituen.

28. Aita afusilatu, etxea erre kisatu eta amari josteko makina ostu (GAU-005/013)

Josunen aita afusilatu egin zuten herriko idazkariarekin batera. Ama umedun zegoen eta pixka bat lehenago semea hil zitzaion. Josunek hiru urte zituen. Josuneren ahizpak dauka gordeta aitaren kontrako salaketa, salaketa jarri zuen pertsonaren izenarekin. Beraien ama jostuna zen eta etxea kentzeaz gain josteko makina ere ostu zioten.

29. Abadeak fusilamenduarekin zuen loturaz (GAU-005/014)

Aurreko pasartean Josuneren aita afusilatu egin zutela kontatzen dute. Hemen abadeak zer zerikusi izan zuen kontatzen dute.

30. Asmakizuna (GAU-008/002)

Asmakizun bat kontatzen du. Intxaurra da erantzuna.

31. Fraideak baserrietan eskean (GAU-008/003)

Mendatako igarlearen kontuak. Fraideak baserrietan eskean ibiltzen ziren. Anekdotak bat kontatzen du.

32. Fraideak, mojak, ijitoak eta hungariarrak eskean (GAU-008/004)

Bere aititak fraidearekin izandako elkarriketa. Urtean bi edo hiru aldiz joaten ziren baserrira eskean. Mojak eta ijitoak ere pasatzen ziren. Hungariarrak urtean behin etortzen ziren, hartzarekin, mahats garaian.

33. Sabino Aranak hildako azken basurdea (GAU-008/005)

Inguruko azkenengo basurdea Sabino Aranak ehizatu zuela kontatzen dute.

34. Dinamita trenez eta itsasontziz (GAU-008/009)

Trenez dinamita ekartzen zuten eta gabarrekin eramaten zuten, eta itsasertzean kargatu.

35. Gaztetako lan gogorrak (GAU-008/010)

Esklabo moduan lan egin izan dutela dio. Ihia ebaki, itsasontziz ekarri eta abereentzat azpiak egiteko erabiltzen zuten. Gaztetan egindako lan gogorra kontatzen dute.

36. Sorginen akelarreak (GAU-008/011)

Sorginen kontuak. Ilargi betearekin akelarreak egiten zituztela dio, mendietan egiten ziren jaiak. Kristautasuna sartu aurretik Euskal Herria zelakoa zen kontatzen du.

37. Oraingo bizimoduaz iritzia (GAU-008/012)

Gizartea lehen baino txarrago dagoela dio. Lagunen poztasuna galdu dela dio.

38. Indabak eta bakailaoa zelan prestatu (GAU-008/015)

Indabak zelan egin behar diren eztabaidan. Bakailaoa zelan egin behar den azaltzen du, pil-pilean eta bizkaitar erara.

39. Arroza zelan prestatu (GAU-008/016)

Arroza zelan prestatzen duen kontatzen du.

40. Marmitakoa zelan prestatu (GAU-008/017)

Marmitakoa zelan prestatzen den azaltzen du.

41. Berakatz-zopa zelan prestatu (GAU-008/018)

Berakatz-zopa zelan egiten den kontatzen du.

42. San Juanetan sasiak erretzen (GAU-008/020)

Sasiak moztu eta sua egiten zuten San Juan bezperan.

43. Marijesiak (GAU-008/021)

Marijesiak egiten zituzten; Gabonak baino bederatzi egun lehenagotik iluntzeetan kantuz aritzen ziren. Mutilak ibiltzen ziren gehienetan.

44. Urteberriko kanta "Urtebarri ekarri..." (GAU-008/022)

Urte berriko kanta abesten du. "Urtebarri ekarri, txarri belarri, dekonak ez dekonari, emotie sari, nik ez dekot eta zuk emoixu niri, zuk emoten ez bozu niri, agur guztiori".

45. Pazko eguneko opila, mokotsa (GAU-008/023)

Pazko eguneko opila zelakoa zen kontatzen dute. Amabitxiak egiten zuen. Mokotsa esaten diote.

46. "Basatuste" eta aratuste (GAU-008/024)

Aratusteetan "marrau" janzten zirela diote. "Basatuste" zelan eta noiz egiten zuten kontatzen dute. Ondoren aratuste edo "karnabalak" izaten zirela dio, hiru egunez. Hausterre egunaren ostean, jaiak bukatu egiten ziren.

47. Labiruko harrobia (GAU-009/002)

Labiruko kantera aipatzen du. Bertako harria zuria zen, Zornotzara eramaten zuten marmola egiteko. Bertako lehenengo langile arduraduna Arrate izan zen, Arbolizen bizi zen arratiarra. Gerora, azkeneko arduraduna Benito izeneko herritar bat izan zen.

48. Goitxitxu lursaila eta Iturrialde basoa (GAU-009/004)

Beraien etxearen lursailak. Etxea Goitxitxu izeneko lursailean dago eraikita. Ondoko basoan eskrituratan "El castañal de Iturrialde" izenez dago; Juanitok beti ezagutu du bertan pinua. Beraien aita erosi zuenean pinua zegoen landatuta; harrezkero, beti pinua sartu dute.

49. Etxearen lursailak, azpigarritan nora (GAU-009/007)

Bere lursail batzuk non dauden aipatzen du: Gerrikoibarra, Naberangoitza, "urbitxartiek"... Lursail batzuk itzetan daudenez, txalupan ibiltzen ziren. Azpigarria non batzen zuten, 80 urtean aritu izan da horrela.

50. Azpigarritako pasadizoak (GAU-009/008)

Behin azpigarritan joan zireneko kontua aipatzen du. Hainbat lagun aritu ziren, batzuk fin, besteak ezinean. .

51. Azpigarria burdiz eta kortan gorde (GAU-009/009)

Azpigarria burdian ekartzen zuren kaminoz kamino, Kamiñozarretik. Behin taketak apurtu zitzaizkien Muruetaganatik bajatzen zihoazela. Azpigarria kortan izaten zuten, ezin zen bertan ibili ere egin. Ezkondu zenean kortatik

kanpo atera zuen dena. Bere aitak uste zuen urak satsari indarra kentzen ziola.

52. Baserriko tresnek asko erraztu dute lana (GAU-009/010)

Beraien aita lan asko egindakoa zen, baina berak ere asko egin behar izan du. Hala ere, makinekin lan errazago egiten zen, lehenagokoek dana egiten zuten eskuz. Eskuko traktorea berak erosi zuen. Karea karobitik ekartzen zuten, kokorik ere ez zen egoten soloan.

53. Satsak ateratzen gertatutakoa (GAU-009/011)

Gurdia eta karroa erabiltzen zuten. Mungiako Egiak egin zion berari karroa. Behin satsak ateratzen gertatutako pasadizoa.

54. Ganadua Bermeora txalupaz (GAU-009/012)

Ganadua Bermeora eramaten zuten saltzeko. Laidara joaten ziren eta "erremorkadan" itsasadarraren beste aldera eramaten zuten. Kamioiekin hasi zirenean dena aldatu zen zeharo. Ganadua etxe barruan, kortan, izaten zuten.

55. Oilagorretan Txakurzulon (GAU-009/013)

Neguan domeketan ehizan joaten zen. Txakurzulo aldera joaten ziren oilagorretan. Orduko pasadizo bat kontatzen du.

56. Oilagorrak saltzen (GAU-009/014)

Saldu egiten zuten ehizatutakoa. Gernikan 2.000 pezetatan saltzen zuten. 30 oilagor hil zituzten 8 egunetan. Taberna Vascara joan eta basoko guardia topatu zuten bertan, Vascako Juanitok esan zion ez eramateko ez zituela behar. Orduan Zornotzako Cojo jatetxera eraman eta 1000 pezetatan saldu zuten bakoitza, 30.000 pezetarekin bueltatu ziren etxera.

57. Eako Galartza guardia (GAU-009/015)

Herriko batek, trago batzuk hartu ostean, guardiari esan zion Juanito non aritzen zen ehizan. Inguruetako basoetako guardia Eako Galartza zen. Berarekin bizi izandako pasadizo bat kontatzen du.

58. Kanalan ehizan Gurdia Zibilak atzetik (GAU-009/016)

Behin Koban zegoela hango ur hotzetara jausi zitzaion ehizako eskopeta. Etxera bueltan izoztuta dutxan sartu behar izan zen berotan sartzeko. Beste behin elurretan Kanala aldean Guardia Zibilekin bizitakoa. Laidan zuten kuartela. Bere atzetik joan arren ez ziren izan harrapatzeko gai. Orduan ere hegaberak ehizatu zituen.

59. Guardia Zibilengandik ihesi bizikletaz (GAU-009/017)

Bere emaztea neska-laguna zuen garaian, bizikleta 7.000 pezetatan erosi zuen. Behin Gabikatik bueltan Guardia Zibilek gelditu zuten. Orduan ere lortu zuen eskapatzea.

60. Guardia Zibilak 1.000 pezetako isuna (GAU-009/018)

Pasadizo asko izan dituzte Guardia Zibilekin, Laidan zuten kuartela. Behin baino ez zuten harrapatu. Orduko pasadizoa kontatzen du, elurretan ehizan aritu zirenekoa. 1000 pezetako isuna jaso zuen Jon Agarrek, dirua asko zen sasoi hartan, baina kentzea lortu zuten. Estankoko Bitorenek lortu zuen kentzea. Eskopeta apurtu zien.

61. Elantxobeko kuartelera (GAU-009/019)

Pasadizo asko izan dituzte Guardia Zibilekin. Behin Elantxobeko kuartelera joateko agindu zien. Bera bizikletaz joan zen, eskopetarekin joan zen baimena berriztu behar zuelako. Jarrera onagatik eman ziotela baimena esan zioten.

62. Laidako kuartelera eskopetaren baimena sinatzeko (GAU-009/020)

Guardia Zibilen kuartela Laidan egon zen. Gernikako Atxikerenean erosi zuten eskopetak bere lagun batek eta berak. Laidara joan ziren baimena sinatzera. Domeka zela eta ez zutela domekaz lan egiten erantzun arren, azkenean sinatu zuten. Gero konturatu ziren lagunak bere eskopetaren baimena sinatu zuela eta berak lagunarenean.

63. Gernikako kuarthelean gezurretan (GAU-009/023)

Eskopetaren baimena Guardia Zibilek pasatzen zuten. Elantxobeko kuartela itxi eta Gernikakora joaten hasi zen. Bertako ondoko auzo baten, Errenterian, bizi zela esan zion bertakoari, baina ez zuela helbidea gogoratzen. Hala ere, lortu zuen baimena sinatzea.

64. Guardia Zibilekin tratuan (GAU-009/024)

Eskopeta nori erosi zion. Guardia Zibilekin egiten zituzten tratuak.

65. Gaztainatan zaldiak ihes, 80 kilo gaztaina (GAU-009/026)

Ehizan eta gaztainaitan joaten zirenean ematen zuen buelta azaltzen du. Eskopetako eskua beti izaten zuen prest. Eskilasoa harrapatu zuen behin eta zaldiak ihes egin zion soka apurtuta. Zaldia non eta nola bilatu zuen. 80 kilo gaztaina hartu zituen behin.

66. Gernikako plazara (GAU-009/027)

80 kilo gaztaina hartu zituen behin. Gernikara joaten zen saltzera bere emaztea. Bere emaztean atera zuen gidatzeko baimena, Juanitok ez zuen balio horretarako, berak mobiletea gidatzen zuen, motorra. Gernikako plazara lehenago gurdian joaten ziren etxeokak.

67. Txakolinaren lehen saria gorria zelako kendu (GAU-009/028)

Bere aitaren sasoiak txakolina egiten zuten. Igandetan jende piloa joaten zen bertara mozkortzera. Inguruan denean zituzten mahastiak, txakolin beltza egiten zuten. Bilbon lehen saria irabazi arren, abadearekin kulpagatik, gorria omen zelako beraien aita, 24 ogerlekoko saria eman zioten, laugarrena. Dirua diplomarekin batera jaso zuen. Bere umeek apurtu zuten diploma Labiruko etartean eskegi zuten eta, baina bere aitak eraso bat izan zela uste izan zuen.

68. Ingurua guztia mahastiz beteta (GAU-009/029)

Mahastiak etxe buelta guztian izan zituzten. Gerra aurretik gaur egun pinudia dena ere mahatsa zen. Eper ugari egoten omen zen. Hiru mahats klase izan zituzten. Beraien aitak zioen mahatsa eguerdi ostean batu behar zela. Sei neba-arrebak

69. Txakolina zelan egin (GAU-009/031)

Hiru mahats klase izan zituzten. Beraien aitak zioen mahatsa eguerdi ostean batu behar zela. Sei neba-arrebak aritzen ziren horretan. Nola egiten zuten azaltzen du. Oraindik 500 litroko barrila gordeta du. Inguruko asko joaten zen bertara txakolina edatera. Herriko tabernak kexatzen hasi ziren, zergak ordain zitzaten eskatuz eta orduan kentzea erabaki zuten.

70. Txakolina egiteari utzi behar (GAU-009/032)

Inguruko asko joaten zen bertara txakolina edatera. Askok mozkor-mozkor bukatzen zuten. Herriko tabernak kexatzen hasi ziren, zergak ordain zitzaten eskatuz eta orduan kentzea erabaki zuten. Aitari esan barik kendu zituen arbolak.

71. Azufrea eta sulfatoa mahastietan (GAU-009/033)

Azufrea eta sulfatoa erabiltzen zuten mahastietan, horri buruzko azalpena.

72. Atxarreko mendiak (GAU-009/035)

Itzagorta eta Atxarren dituen beste bi mendi aipatzen ditu: Gantzuri eta Palomendi. Palomendin 25 metroko sakonera duen leizea dago. Handik hurbil dago Ibarrangelutik banatzen duen mugarria.

73. Olarreta mendia (GAU-009/037)

Aurreko pasartean aipatu du Palomendin 25 metroko sakonera duen leizea dagoela. Baina hondoa tapatu zuten. Olarretan ere beste leize bat omen dago. Olarreta mendia non dagoen aipatzen du.

74. "Kanpofubola" eta Esturon txabola (GAU-009/038)

"Kanpofubola"ri eta Esturon txabolari buruzko azalpena

75. Auzoko bat beti lapurretan (GAU-010/001)

Auzoko bat lapurretan aritzen zen, oso erraz egiten zuen: arraindunari, auzokoei, errotan...

76. Gari errota Oman, artoarena Ozollon edo Oletan (GAU-010/002)

Kortezubiko Oma auzoko Goikolea errotara joaten ziren. Bere amak garia bertan baino ez zelan egoten esaten ei zien. Ozolloko mare errotara edo Oletara artoarekin joaten ziren.

77. Etxean egindako ogia; jatun txarra (GAU-010/004)

Laba etxean izaten zuten. Beraien amak 8 egunetarako ogia egiten zuen. Taloa ere egiten zuten. Bera ez da izan morokil zalea. Bera talo-zopak janez hazitako mutila dela dio.

78. Soldadutzatik bueltan denetarik jaten hasi (GAU-010/005)

Argal-argala zen. Amak soldadutzara pernila, txorizoa eta txokolatea bidaltzen zizkion. Soldadutzako jatekoa oso txarra zen. Entsalada bare eta guzti jaten zuten. Etxera etorri zenean denetarik jaten hasi zen.

79. Igertutxiki (GAU-010/007)

Igertutxiki basoa non dagoen azaltzen du. Mugarria.

80. "Jose Herrero"ren perratokia (GAU-010/011)

"Jose Herrero", perratokia zuenak, Kortezubin beste bat zuen, Matxinekoak ziren. Mugarriak.

81. Koba Labiru azpitik (GAU-010/012)

Koba Labiru azpitik, beraien etxe azpitik, pasatzen dena entzun izan dute beti. Juanitok bere soloa askotan urez bete izan dela kontatzen du. Hamaika aldiz harriz bete izan duela, teilaz ere estali izan du. Adituek azterketa asko egin izan dituzte bertako ura aztertzeko.

82. Txakurzulo (GAU-010/014)

Txakurzulo zeri deitzen dioten, Ibarrangeluko lurak dira. Mugarriak.

83. Mortxa eta Kanalaburu (GAU-010/015)

Mortxa izeneko mendia eta Kanalaburu non dauden azaltzen du pasarte honetan. Mugarriak.

84. Burutxagane mugarria, Kanalakoa... (GAU-010/016)

Mugarriak: Burutxagane mendikoa, Kanaleko eliza ondokoa... Harritzko mugarriak herriak banatzen ditu; gurutzeek herriaren eta herritarren lurak banatzen ditu,

85. "Jentilen kuartue" (GAU-010/018)

"Jentilen kuartilue" deiturikoa non dagoen azaltzen du.

86. Tremoiako gurutzea, mugarri (GAU-010/021)

Tremoian dago Ibarragelu eta Gautegiz-Arteagaren arteko muga zehazten duen gurutzea, gurutze ederra eta handia Juanitoren esanetan.

87. Larra, Larratxu eta Larragoiko (GAU-010/023)

Larra, Larratxu eta Larragoiko baserriak aipatzen ditu. Zeintzuk diren, zein bizi zen, Larratxu taberna zela...

88. Larratxuko taberna (GAU-010/027)

Larratxun taberna zegoen. Horko kontuak kontatzen ditu.

89. Kitanuak oihalak saltzen (GAU-010/028)

Kitanuak etortzen ziren oihalak saltzen. Bertako batzuekin bizi izandakoa kontatzen du.

90. Auzoko baserrien izenak (GAU-010/030)

Bere auzoko etxeen izenak ahozko eran: Agarezarre Donbillene, Tanboliñene, Goitxi, eta Labiru (Labirubarri eta Labiruzar).

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com